



Estitxu Sudupe ... Kantaria

«Sekula eman dudan kontzerturik onena eskaini nahi dut gaur»

Estitxu Sudupek, UGA taldeko abeslariak, badu pozik egoteko arrazoia: duela bi urte, Donostiako Orfeoia utzi eta, Carl Watermarken eskutik, disko musika jorratzeari ekin zion, eta taldeak harrera bikaina izan du Euskal Herria osoan. Gaur, Urretxun bertan kantatuko du jendaurrean.

...

Uda honetan kontzertu piloak eskaini ditu Estitxu Sudupek hainbat herritako jaietan, eta, aldi berean, urrian kaleratuko

den hirugarren diskoa grabatzen aritu da. Hori gutxi balitz bezala, gaur lehenengo aldiz Urretxun kontzertua eskainiko du. Estitxuri ilusio handia egiten dio urretxuarren aurrean

aritzeak, eta gaurkoa udako azkeneko kontzertua izango duenez, Santa Anastasia jaiez gozatzeko parada ere badu datozen egunetan.

■ Nondik nora ibili zara uda honetan, Estitxu?

Kontzertuz kontzertu ibili naiz ia uda osoan. Abuztu hasieran Italia aldera joan nintzen oporretara, eta handik bueltan, Bilbon, Laudion, Elgoibarren, Donostian... izan gara, eta gaurkoa udako azken kontzertua izango

da. Hirugarren diskoa grabatzen ere aritu garenez, ia uda osoa lan eta lan igaro dut.

■ Nolakoa izango da hirugarren disko hau?

Orain arte hiru abesti grabatu ditugu. Disko berria udazkenean kaleratzeko asmoa dugu, horretarako sasoirik aproposena dela uste baitugu. Aurreko diskoen antzekoa izango da, baina oraingoan, *a capella* abestuko dugun kantu bat ere sartu dugu. Bestalde, disko honetako letra guztiak nik idatzi ditut, eta abesti bateko musika konposatzen ere lagundu dut. Abesti gehienak alaiak dira, baina tratu txarrei buruzko kanta bat ere sartu dugu, ahal dugun heinean gauza hauek salatzea ere gure egin-beharra baita.

■ Abestien sormen lanean geroz eta partaidetza handiagoa duzu...

Hala da; lehenengo diskorako hiru letra soilik idatzi nituen, eta azkeneko honetan, berriz, guztiak. Hasieran zail samarra egiten zitzaidan, baina jada moldatu naiz. Idazteak lana ematen didanez eta abestiak nire esperientzietan oinarrituak daudenez, abesti hauekin identifikatuagoa sentitzen naiz. Ezagunek Urretxuri buruzko abestiren bat idazteko esaten didate, baina gero denak eskean has daitezke, eta ezin denekin konplitu...

■ Kontzertuak, diskoen prestaketa, promozioa... beste ezertarako astirik baduzu?

Uda plazarik plaza eta diskoa grabatzen eman dugu, baina gainerakoan, kontzertu gutxi batzuk eta diskoaren promozio lana besterik izaten ez dudanez, nire lanbidean aritzeko aukera dut. Izan ere, ez dakit UGA proiektuak zenbat iraungo duen, eta etorkizuna kontuan hartu beharra dago. Hasieran, egunen batean, Donostiako Orfeoira itzuliko nintzela uste nuen, baina badirudi proiektuak aurrera egingo duela, eta ez dut Orfeoira itzultzeko asmorik.

■ Musikaz gain, zein da Orfeoia eta UGAren arteko alde nagusia?

UGAn aritzeak poztasun handiagoak ematen ditu, baina nekezagoa ere bada, erantzukizuna handiagoa baita. Izan ere, ni naiz taldearen irudia, onerako zein txarrerako: loreak zein to-

GAURKO EMANALDIA

«Urretxun kantatzeko gogo izugarria dut, maite nauten guztien aurrean»

JAIK

«Orain arte festarik festa baina lanean ibili naizenez, festa egarriz nago»

mateak jasotzeko. Zorionez, oraingo ez didate tomaterik bota, eta oso pozik nago.

■ Azken bi urteak taula gainean eman ondoren, bitxikeriaren bat edo beste izango duzu kontatzeko...

Jende oso ezberdina ezagutzen da, eta herriaren arabera ere asko aldatzen dira ikusleak, haurrak batez ere. Toki batzuetan oso formalak dira eta haurrak izaten jarraitzen dute, baina beste batzuetan, berriz, 12-13 urteko haurrak oso aztoratuta ibiltzen dira. Sekulako astakeriak entzun behar izan ditut batzuetan.

■ Gaur, berriz, lehenengoz zure herritarren aurrean ariko zara...

Urretxun kantatzeko gogo izugarria dut, nahiz eta erantzukizun handia den. Izan ere, maite nauten guztien aurrean kantatzeko aukera izango dut, baina argi dut kritikak ere zorrotzagoak izango direla. Sekula eman dudan kontzerturik onena eskaintzea gustatuko litzaidake. Oso emozionaturik egongo naiz, eta jendea gustura uztea espero dut.

■ Jaietako zer asmo duzu?

Gaurkoa udako azken kontzertua izango denez, ondorengo egunetan nahi adina parranda egiteko aukera izango dut. Kultur Etxekoek kontzertua ostira-lean jarri behar zutela esan zidatenean, eskerrak eman nizkien, jaiak gozatzeko gogo bainuen. Gainera, orain arte festarik festa baina lanean ibili naizenez, festa egarriz nago...

Pizza Sprint
Jai zoriontsuak opa dizue !!
ETXEZ-ETXEKO BANAKETA DOHANIK
☎ 943 72 00 88 • URRETXU • Labeaga, 33 - J

IKER

FAGOR



SUKALDE ALTZARIAK

Udala Enparantza
Tel.: 943 79 00 43 **ARRASATE**
Ipiñarrieta, 5
Tel.: 943 72 50 75 **URRETXU**